

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Gobernuak eta Nafarroako Nekazaritzako Kooperatiben Batasunak lankidetzahitzarmena sinatu dute Nafarroako nekazaritzako kooperatiben lehiakortasuna hobetzeko

150.200 euro emango dira laguntzetan 2018. urtean

Asteartea, 2018.eko irailak 25

Landa Garapeneko, Toki Administrazioeko eta Ingurunekeko Departamentuak eta Nafarroako Nekazaritzako Elikagaien Kooperatiben Batasunak (NNEKB) hitzarmena sinatu dute (150.200 euro laguntzatan), nekazaritzako enpresa horiek lehiakorragoak izan daitezen eta sektorea berregituratu dadin, enpresaren tamaina hobetuta.



Ezkerretik eskuinera: Patxi Vera, José Mari Martínez, Elizalde kontseilaria eta Ignacio Gil.

Sinaduran honako hauek egon dira: Landa Garapeneko, Toki Administrazioeko eta Ingurumeneko kontseilaria Isabel Elizalde; Landa Garapeneko zuzendari nagusia, Ignacio Gil; NNEKBeko zuzendari kudeatzailea, Patxi Vera; eta NNEKBeko lehendakari José Mari Martínez.

Hitzarmena medio, burutuko diren ekintzak bost jarduera-eremutan zatitzen dira: Nafarroako nekazaritzako elikagaien kooperatibismoa ordezkatzeko sektorearentzat interesgarriak diren foro, topaketa eta erakundeetan, eta merkatuen egoera hedatzea Espainian nahiz munduko gainerako lekuetan. Era berean, NNEKBek araudiei eta laguntza-lerroei buruzko informazioa emango die kooperatibei, kooperatiben profesionalizatzea sustatuko du, eta integrazio kooperatiboa dinamizatuko du.

Akordioa "2014-2020 aldira Nafarroako Foru Komunitateko nekazaritzako elikagaien sektorean kooperatiben integrazioa sustatzeko esparru estrategikoa" agirian kokatzen da, hiru zutabetan garatua: zeharkakotasun-printzipioa, elkartegintza sustatzeko estrategia eta integrazio kooperatiboa garatzeko aukera ematen duena; laguntzarako neurri espezifikoak definitzea eta ezartzea; eta fiskalitatean nahiz Nafarroako kooperatiben erregulazioan aplikatu daitezkeen foru-legeen aldaketa.

NNEKBek Nafarroako nekazaritzako elikagaien sektorearen zati

handi bat ordezkaten du, gaur egun sektore guztietako 137 kooperatiba biltzen baititu guztira eta 19.000 nekazari eta abeltzain bazkide baino gehiago. Gainera, horren helburua da Foru Komunitateko nekazaritzako kooperatiben eta bazkideen interes orokorrak ordezkatzeko eta defendatzeko.